

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko otsailaren 16a



Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Meson de la Nabarrería tabernan, Sex Haizegoaren lehiaketako margolan erotikoak jarri dituzte
Txaro Zubieta • «Lan handia egin beharko da jende gazteak Kautereetan parte hartzeko»

Sendabelarrak




JARABE ALIMENTICIO DE LLANTEN
Elaborado a base de extractos de plantas y miel

Contenido neto: **250 ml. e**

Complemento dietético a base de extractos de plantas y zumos de frutas ricos en vitaminas

Contenido neto: **250 ml. e**



Kontsumitzaileek, geroz eta gehiago, produktu ekologikoetara jotzen dute, nola elikaduran hala medikuntzan. Sendabelarrak, geroz eta gehiago saltzen dira. Kontsumoa gutika handitzen ari da, baina nabaria da, janaren inguruko eskandaluak lagun, jendeak gauza naturalak dituela nahiago. Nafarroan sendabelarren industria ttikia da; apenas dagoen ekoizlerik. Baina hiru enpresa banatzaile daude, eta belardendak ugaltzen ari dira.

S
FL
HIERF
Exent
Propo
Conte
neto:
250 r

Pintura lehiaketarik beroena

Pablo Pagola iruindarrak irabazi du Sex Haizegoak antolaturiko margo sariketa

Pablo Pagola iruindarrak irabazi du Nafarroako hiriburuko Sex Haizegoa denda erotikoko antolatu Pintura Erotikoko IV. Saria, *La mirada del otro* izenburuko koadroarekin. Bigarren Koldo Gojenola izan da, *El abrazo de la Lamia* obrarekin. Lehiaketa horren bidez, herritarrengana hurbildu nahi du Sex Haizegoak.



LAUGARREN ALDIZ ANTOLATU du aurten Sex Haizegoak pintura erotikoko saria, eta 44 lan aurkeztu dira; iaz baino gehiago. Dendako arduradun Firu Alonsok lehiaketa nahiko sendotuta dagoela uste du, eta sariketaren bidez Sex Haizegoa herritarrengana hurbildu nahi duela azpimarratu du. «Jendeak oraindik aurreiritzi asko du gisa horretako jardueren inguruan, eta guk normalizatu egin nahi dugu».

Hori da pintura erotikoko sariaren helburu nagusia, baina badu beste xederik ere, artisten lanari lotuagoa. Izan ere, Euskal Herriatik eta kanpotik aurkeztutako lanen artean hamabost aukeratu eta Iruñeko Meson de la Navarrería tabernan zintzilikatu dituzte, nahi duten guztiek ikus ditzaten. Tartean dira, noski, Pablo Pagola irabazlearen *La mirada del otro* (*Bestearen begirada*), eta bigarren sailkatu den Koldo Gojenolaren *El abrazo de la Lamia* (*Lamiaren besarkada*).

Pablo Pagola 24 urteko artista gaztea «hagitz kontent» dago sariarekin. «Erran zidatenean ezin nuen sinetsi, ez nuen espero», azaldu digu. Era askotako materialekin jokatu du *La mirada del otro*. Serigrafiak, olio pinturak eta zurak, besteak beste, bat egiten dute bere obran, eta irudien errepikapenaren bidez begiradaren alderdi erotikoa nabarmendu nahi izan du. Pagolaren ustez, erotismoak artearekin lotura estua du: «Behin eta berriro errepikatzen den gaia da».

Doktoretza egiten ari den artista gaztea

Leioako Arte Ederretako Fakultatean ikasi zuen Pagola nafarrak, eta orain doktoretza egiten ari da, eskultura sailean. Sex Haizegoak antolaturiko saria irabazi duen obran bezala, era askotako tekniken eta materialen nahasketa da Pagolaren ibilbide eta proposamenetan ardatz nagusia. «Denetarik egitea interesatzen zait. Teknologia

berrien aroan eskulturak eta pinturak oraindik errateko asko dutela erakutsi nahi dut, espazio berriak zabal ditzaketela erakutsi».

Eskuratu berri duena ez da karrera amaitu zuenetik Pagolak lortu duen sari bakarra. Bilbon ere nabarmendu dute haren lan bat, eta laster Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik erakutsiko ditu bere obrak. Iruñeko Udalak antolatu duen Artista Gazteen Lehiaketan ere, azken ekitaldian, haren lan bat hautatu zuen epaimahaiak.

Sex Haizegoaren Pintura Erotikoko Sariketan berriro parte hartzeko asmo sendoa du artistak.

Idazleek ere badute euren trebetasuna erakusteko aukera Sex Haizegoaren eskutik, Narrazio Laburren Sariketa ere antolatzen baitu denda horrek urtero. Pintura, literatura... Hurrengoa eskultura erotikoa ote?

→ Edurne Elizondo



Sex Haizegoa denda erotikoko antolatu sariketan parte hartu duten obraren artean hamabost aukeratu eta Meson de la Navarrerian zintzilikatu dituzte. ● MIKEL SAIZ

muga enea

MIKEL REPARAZ



Almirantea jauregiko lorategira atera da, berriz ere. Banana-loreak eta papaiondoak usaindu ditu, eta arnas hartu du, gogoz. Zein ederra den bizitza, esan dio bere buruari, eta beste dekretu bat izenpetu du. Sinadura polita du almiranteak. Hori esaten du behin eta berriz izenpetzeko dekretuak eta paperak logelara eramaten dizkion zerbitzariak. Sinadura polita duzu, almirante. Eta, zein ederra den bizitza, lorategiko orkidea eta palmondoen artean galdu da berriz ere almirantea. Uniforme zuria hautatu du gaur ere.

Diktadore bat dela esaten dute hor inguruan. Baina lorategiko hormetatik kanpo oihu egiten duten alproja

horiek guzkie protesta zentzugabeak egiten dituzte. Ez baitakite haien mesedetan izenpetzen dituela berak dekretuak. Ongizatearen karietara. Gaur, esaterako, gaur goizean gogo txarrez esnatu da almirantea. Ez-dakit-zer sumatu du erraietan, eta gosalduta gabe zegoela pentsatu du. Baina oparo gosalduta ere ez-dakit-zer horrek erraietan bueltaka hor segitzen zuela egin du kontu. Izan ere, deliberatu du bananondo baten itzalpean, Errepublikako herrien izenak ez zaizkie gustatzen. Eta orduan bururatu zaio «bururatu, erraietatik lepoan goiti» dekretuarena. Herritarren ongizatearen alde.

Banana baten irudiak ez luke Errepublika ordezkari

tu behar. Horrela, iluminazio baten gisara etorri zaio herrien izenak aldatzearena. Hemen dago almirantea legeak aldatzeko, esan dio bere buruari. Eta Lizarraga Fresneda izan zitekeela pentsatu du. Beraz, Lizarragabengoa, Fresneda de Abajo. Eta Iturmendi, Fountain Hill. Eta zenbait kasutan herrien izenak asmatu ere asma zitekeela idatzi du dekretuan. Urda-zubi ez baitzaio sekula gustatu. Esaterako. Mango koktelaz eztarria eta garuna freskatu eta hasperen egin du almiranteak. «Lan ederra», esan dio bere buruari. «Sinadura ederra», errepikatu du zerbitzariak.

Ceinec daqui nola esnatu den bihar almirantea. Yaincoac gorde dezala almirantea.

Leitza ●

Guatemalako hezkuntza programa aurrera doa

Begoña Zestau leitzarrak aurrera segitzen du Guatemalako eskualde txiroetan bizi diren familiei zuzendutako proiektuarekin.

Proiektuaren lehen fasea iaz burutu zen, eta Leitza aldeko herritarrek egin zuten posible inguru marjinaletan bizi diren familiei laguntzea.

Proiektua Quetzaltengoko hiri bazterrean bizi diren hamar familiari dago zuzenduta



Quetzaltenango auzo baztertu bateko familiko haurrak. ● BEGOÑA ZESTAU

Begoña Zestau berriro ere jendearen laguntzaren bila dator. Oraingoan, berak azaldu zuenez, baliabide eskaseko hamar familiarentzako hezkuntza proiektua gauzatu nahi du Xelan, Guatemalan. Begoñak esan zuenez, pobrezia bultzatuta hiri kanpoaldera mugitu den jendea oso egoera larrian bizi da. Familia horiek ez dute ez urik, ez argindarrik, eta are gutxiago hezkuntza jasotzeko aukerarik, Guatemalan umeak eskolara bidali nahi dituenak ordaindu egin behar izaten baitu.

Gainera, familia bakoitzak 4-8 seme-alaba izaten ditu, beraz, horrenbeste jenderi ezin jaten

eman diotenez denak lanera bidali behar izaten dituzte. Zestauk azaldu zuenez, lau urteko umeak ere ikus daitezke lanean, kalean gauzak saltzen, lurrak lantzen, zapatak garbitzen... Egoera latz horretatik ateratzeko gogoia badutela esan du Begoñak eta, horregatik, DIROCC gobernuz kanpoko erakundearen bidez hezkuntza plan oso bat garatzeko proiektua aurkeztu du Leitza aldean.

Azaldu zuenez, proiektuak hiru fase ditu. Lehen fasean, 30 umeri azterketa medikoa egiteko aukera eskainiko zaie; hezkuntza bezala, medikuntza ere ordaindu egin behar baita Guatemalan. Lehen fasea aurrera ateratzeko 90.000 pezeta behar dira (3.600 libera).

Gero, ume horiei sei urterako ikasketak ordaintzeko asmoa dute; matrikulazioa, tresneria, jantziak, garraioa,

jangela eta bestelako gastuak pagatu behar dira hamaika hilabetetan eta, horretarako, 180.000 pezeta behar dira (7.200 libera).

Hirugarren fasean planifikazio plana dator. Haurren gurasoek, haurrak hezteko dituzten zailtasunehar, beraien zailtasunehar hezkuntza plana eskatu dute, haurrak hezteko laguntza profesionala. Jaiotzak kontrolatzea beharrezkoa dute, baina bideak erakutsi behar zaizkie, eta horretarako ere ezinbestekoa da ordaintzea.

Begoñak gogoratu zuen iaz hasi zuten proiektu horretarako Nafarroako Kutxan kontu bat zabaldu zuela: 2054 0024 78 912335971 8. Orduan lehen urratsak egin zituen Begoñak, hala nola Karrape irrartian hitz egin zuen, diaporama emanaldia eskaini zuen, elizakoei proiektua erakutsi eta haien laguntza lortu zuen, eta bestelako erakunde batzuekin ere harremanetan jarri eta urtebeteko dirua biltzea lortu zuen. Orain laguntza gehiagoren bila ari da, proiektuarekin aurrera segitzeko.

→ Eli Belauntzaran

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Musika, sagardoa eta ikasketa bidaiak

Imotz, Basaburua eta Ultzamaldeko **Pulunpe** aldizkariak Aralarako Musika Eskolak bete berri duen 30. urtemuga ekarri du gogora bere azken zenbakian: «Aralar Musika Eskola sasoi betean iritsi da bere 30. urteurrenera: 18 irakasle, 411 ikasle eta 618 matrikula, eskaintza musikal aberats eta zabal batean. Urtemuga ospatzeko, marrazki lehiaketa egin du eskolak ikasleen artean, eskola bera eta musika gai gisa hartuta. Laster jakinaraziko dituzte irabazleen izenak. Kantaldia eta Xexili eguneko kontzertua ere izan dira. Azken hori izugarriko giro onean burutu zen ikasleen artean».

Sagardotegi berri ere ematen du **Pulunpek**, Angel Alvarez Berueteko sagardogileari egin elkarrizketaren bidez: «Orain bost sagardotegi dago Nafarroan, eta ni hasi nintzanean bakarra ere ez. Ni izan nintzen aurrenekoa. Lehen sagardoa egiten zen bazter guztietan, hemen ere egingo zen, nahiz eta hemengo zaharrek ez ezagutu, lehen-lehenago egingo zen. Zergatik? Sagardoa egiten da ardoa egiten ez den lekuan. Herri guztiek dute beren alkohola; hemen denak mozkortzen dira, lehenago gehiago oraindik», dio Alvarezk.

Ttipi-ttapa aldizkariak, bestalde, ikasketa amaierako bidaiak aztertu ditu azken zenbakian, Aitor Arotzena kazetariak sinatu artikuluaren bidez: «Ikasketei akabaila emateko modu arruntena ikasbidaia izaten da. Ikasleek beraiek antolatzen dute. Gehienetan Katalunia edo Mallorca aldeira jotzen dute, baita Andaluziara ere. Ikasle gehienek, lagunartean oporraldia ederki pasatzeko eta ikastetxeko teilatupetik alde egiteko egunak direla uste dute. Ongi pasatu, bai, baina aldi berean hezkuntzarako baliagarriak izanen diren ekitaldiak eginez».

Zientzia (laostia!)

Zientzia da laostia. Nola argitzen digun munduaren anitza eta beste. Nola urratzen duen gure ezjakintasunaren gau iluna eta abar. Da laostia. Azkena: genomarena. Noski. Teleberria paratu eta giza genomaren %97 «zaborra» besterik ez dela entzuten dut, hara!, eta Miguel Sanzen jardura harrigarriagoa egiten zait bat-batean. Begira bestela gainontzeko %3 horrekin zer nolako gauzak egiteko kapazaden! Hori da, hori, gaiztakeria konprimitua!, kondentsatua!, dedio! Eta %3 horrekin aski du! Erlojuetako pilekin gertatzen den antzeko zer edo zer gertatuko da gure lehenakariarekin. Badakizue: pila txikitxo horietako bat aski da, nonbait, erreka guztia mendeetan kuttatzeko. Bada, bota ezazue, proba egin nahi izanez gero, Miguel Sanzen gene bat Argara eta ikusiko duzue! Dedio! Baietz Groenlandiakoak kexuka etorri baleak bat-batean hil direla esaka! Zeren, aizue, dena lotuta dago. Eta Txinako Pinpilinpauxak hegala astinduz gero Polonian euria egiten badu... zer ez da bada gertatuko gene hori Argara botatzen badugu! Bueno-o! Baietz Txinatik e-posta bat jaso Pinpilinpauxa bera jota erori dela! Gene bakar batekin, aizue. Bi botaz gero ilargia fuera! Fuera eguzkia! Popatik artzera dena! Genomarena aizue! Eta neskek? Orain, informazio berri honekin ari garela, zer esaten didazue neskek? Zera, guk kalean edo tabernetan begiratzen genituen, ez dakit ba!, osotasun batean eginak zeudela pentsatzen edo ehuneko ehuna hortxe, jarrita zutela lana ongi betetzeko eta ez ba! Kristoren meritua daukate neskek! Beraien genomaren %97 «zaborra» besterik ez den arren... zeinen ongi banatua! Zer proportzio eleganteekin! Kaguenlaley! Dedio! Eta, beno, utziko zaituztet. Hemen atzean neska-laguna daukat «ton-tolaba bat zara» esaka, kaguenlaley!, eta ezin kontzentratuz nabil azken txanpa honetan. Bukatzeko zera bakarrik aipatu nahi nuen: Zientziarena laostia dela. Gelditu zaitzete ideia horrekin, eta nire helburua betetzat emango dut. Ba-kea guztiontzat. ●

Sendatzeko belaria

Belar-dendak ugaltzen ari dira, eta farmazialariek sendabelarrak erabiltzeko kanpaina abiatu du

Kontsumitzaileek geroz eta gehiago jotzen dute produktu ekologikoetara, bai elikaduran bai medikuntzan. Sendabelarrak geroz eta gehiago saltzen dira. Kontsumoa gutkia handitzen ari da, baina nabaria da, janaren inguruko eskandaluak direla eta, jendeak gauza naturalen bila jo duela. Nafarroan sendabelarren industria tikiak da; apenas dagoen ekoizlerik. Baina hiru enpresa banatzaile daude eta belar-dendak ugaltzen ari dira.

DIEIRRIKO PRODUKTU Biologikoak enpresak Zurukuain herrian du egoitza. Enpresak bi fronte ditu: Laket enpresa banatzailea bata, eta Aroa ardoen ekoiztea bestea. Laketek janari ekologikoa eta fitoterapiako (sendabelarren bidezko tratamendua) produktuak banatzen ditu. Laketen bidez, Nafarroako 60 bat dendatarara (ez botiketara) eramaten dituzte sendabelarrak eta horiekin eginko produktuak. Batez ere Iruñerrian banatzen dute, baina Tuteran, Gares, Elizondo eta Leitza-raino ere ailegaten dira. Denetara mila bat produktu dituzte katalogoan.



Xabier Azanza

LAKET ENPRESA BANATZAILEA

«Produktu ekologikoetan, Europarekin konparatuz gero, oso azpitik gabiltza. Jendeak gehiegi gastatzen du zenbait gauzatan, eta beste batzuetan gaizki iruditzen zaio gehiago gastatzea. Produktu ekologikoak garestiagoak dira, bai, baina osasunak eskertuko digu»

Xabi Azanza Laket enpresako kideak azaldu duenez, produktuen artean badituzte sendabelarrak bere horretan, sendabelarren nahasketak (tratamendu berezietarako), estraktuak, pilulak eta jarabeak. Produktu horiek ez dira Nafarroan ekoizten, ez behintzat enpresa moduan, eta kanpoko etxeetara jo behar dute, Soria edo Katalunia aldekoetara.

Europatik oso urruti

Enpresa Kepa Larunbek beste lagun batekin sortu zuen, duela zazpi bat urte. Hasieran ekoizle izan nahi zuten. Baina zaillegia izan zela ikusirik, banatzaile egin ziren. Aurten, enpresa finkatu denez, ardo ekologikoa ekoizteari ekin diote. Egun, zortzi lagun dira lanean enpresan.

Xabi Azanzaren aburuz, geroz eta jende gehiagok jotzen du horrelako produktueta, baina oraindik asko falta omen zaigu. «Europarekin konparatuz gero, oso azpitik gabiltza»,

erran du Azanzak. «Nire ustez, jendeak gehiegi gastatzen du zenbait gauzatan, eta gero beste batzuetan gaizki iruditzen zaio gehiago gastatzea. Adibidez, ginkas batengatik ez zaigu axola 900 pezeta ordaintzea gau batean, baina gero egunero ogiarekin pezeta bat gora eta behera gabiltza. Produktu ekologikoak garestiagoak dira, bai, baina osasunak eskertuko digu».

Azanzarendako, botika kimikoak «adabakia» dira. «Azaleko zerbait estaltzen dute, berriz ez. Baina gaixotasunak barruko gaitz baten isla dira. Produktu ekologikoek barruko sendatzen dute, nahiz eta kanpokoak estaltzen gehiago kostatzen zaion».

Azanza bezala, Larunbe ere produktu ekologikoen banatzailea izateaz gainera, kontsumitzailea ere bada. «Familiar erabiltzen ditugu produktu hauek, batez ere elikaduran», dio. «Bineskatu ditugu, eta gaitzen bat dutenean ematen dizkiegu sendabelarrak».

Sendabelarren industria goraka doa gutika,



Nerea Anbustegi

GOROSTI BELAR-DENDA

«Belar-dendetan jende prestatua dago sendabelarrei dagokienez. Akaso farmazialariek baino prestatuago. Kontua da guk urteak ematen ditugula ikastaroak egiten, naturopatia ikasten, baina gure ikasketek ez dute inolako homologaziorik»



Launberen iritzi. «Baina sektoreak profesionalizazioa behar du. Kontsumitzaileak belar-denda batera joaten denean aholku tekniko ona behar du. Intxixuaren irudiarekin bukatu behar da. Eta jakin behar da esplikatzeko belar batek zergatik duen ondorio hau eta bestea».

Belar-dendetan jende prestatua dago»

Nerea Anbustegik Iruñeko Gorosti belar-dendetan egiten du lan. Bere ustez, belar-den-

Get sendaboa egiten lanis ber lasak (izp) (bizigarrea, eukalipto) eta ez minarerilira.

detan jende prestatua dago. «Akaso, kontu honetan, farmazialariek baino prestatuago», erran du. «Farmazialariek karreraren honi buruz kasik ez dute deus ikasten. Gero beste interes batekin ikasi izan badute, agian bai. Guk urteak ematen ditugu ikastaroak egiten, hiru urte naturopatia ikasten, baina gure ikasketek ez dute homologaziorik». Horrek, noski, ez du erran nahi sendabelarren gaineko aholku onik eman ezin dezaketarik.

Antonio Elizagarai, Ortzadar belar-dendeko jabea, Herdina Nafarroako Belar-denden



Sendabelarrak erabiltzen laguntzeko kanpaina

NAFARROAKO FARMAZIALARIEN ELKARGOAK SENDABELARRAK zure farmazian izeneko kanpaina abiatu berri du. Kontsumitzaileei zuzenduriko kanpaina da. Sendabelarrek botika bezala garrantzi handia dutela jakinarazi nahi dute farmazialariek, eta sendabelarrak modu egokian erabiltzea funtsezkoa dela. Azken hau omen da kanpainaren helburu nagusia. Kontsumitzaileek sendabelarrak ongi erabil ditzatela nahi dute farmazialariek.

Nafarroako 50 bat farmazialarik parte hartuko dute kanpaina honetan. Farmazialari bakoitzak, bizpahiru egunetan, sendabelarren nondik norakoak berri emango du. Hitzaldi hauetara edonor joan daiteke, eta horretan interesa duenak hobe du bere etxe ondoz botiketara joan eta galdetzea ea noiz egiten duen bertakoak hitzaldia.

Hitzaldietan farmazialariak esplikatuko du zer diren sendabelarrak, zertan datzan fitoterapia (landare medizinalen erabilera farmazeutikoa), eta sendabelarrak nola erabil daitezkeen hainbat gaitzi aurre egiteko. Era berean, loezinari, estresari, antsietateari, idorreari, barizeei eta hemorroideei aurre egiteko modua azalduko du, oso modu errazean. Hitzaldiak emateko, farmazialariek hainbat mintegitan parte hartu dute, «ezagupenak eguneratzeko», eta mono-

grafia baten laguntza dute. Eta hitzak diapositibekin lagunduko dituzte.

Kanpainako koordinatzaile Maria Puy Perezek adierazi duenez, «kanpainaren helburua heztea da, kontsumitzailearen baitan jarrera kritikoa sortzea»; hau da, erabilera okerrak zuzentzea. «Ez dugu eragotzi nahi automedikazioa, egokia izatea nahi dugun».

Puy Perezen aburuz, egungo kontsumitzaileak asko daki, eta botikak hartzeko erabakia bere kabuz hartzen du anitzetan. Kontua da hori ongi egitea. «Izan ere, argi izan behar dugu naturala dena ere kaltegarria izan daitekeela. Baina beldurra kentzea ere beharrezkoa da. Berme guziak dituzten botikez ari gara. Izan ere, botiketan saldu ahal izateko hainbat kontrol pasatu behar dituzte balarez eginko botikek. Eta, era berean, kontsumitzaileak jakin behar du farmazietan profesionalak daudelako ahol-



kuak emateko, bidea erakusteko, okerrak zuzentzeko».

Kanpaina, erran bezala, kontsumitzaileei zuzendurik dago, ez medikuei; farmazialariek «gaixotasun tikiak» egiten baitute lan. Puy Perezek adierazi duenez, badira sendabelarrak erabiltzen dituzten medikuak, baina guti dira. «Akaso, legeak botikatzat jotzen dituen arren, Gizarte Segurantzak ordaintzen ez dituelako».

informazio gehiago

Hitzaldiak:

Farmazialarien hitzaldiak

- * Mutiloabeitin, hilaren 19 eta 20an, 16:00etan, udaletxe zaharrean.
- * Oteitzan, hilaren 21ean, 19:30ean, liburutegian.
- * Iruñean, hilaren 22 eta 23an, 18:00etan, Corpus Christi parrokian.
- * Noainen, hilaren 26an, 20:00etan, Kultur Etxean.

Txumari Alfaro naturistaren hitzaldia

- * Osasuna sukaldaritzaren eskutik. Gaur, 17:00etan, Barañango Alaitz ikastetxean.

Webguneak:

- * **El reino de las hierbas**
www.geocities.com/FashionAvenue/2811
Sendabelarrak erabiltzeko argibideak, zerrenda luzea, hiztegia, liburu erreferentziak, chata, loturak...
- * **Informacion fitomedicina**
www.infomed.sld.cu/fitomed
Fitomedikuntzaren inguruko Kubako webgunea. Sendabelar bakoitzaren gainean oso informazio zehatza.
- * **Maraiko sendabelarrak**
www.euskalnet.net/wazemak/sendabelarrak.html
Oiertzungo Marai baserriko sendabelarren inguruko euskarazko webgune xumea.

→ Asier Azpilikueta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Juan Mateo Zabalaren azken liburuaz

Durangoko azken liburu azokarako Zabala aitaren euskal predikuen bildumaren bigarren alekia aurkeztu zen; huraxe izan da, gainera, zendu aurretik Villasante aitak paraturiko azken lana. Sermoi ahanzi horien bizkaiera jantzi eta dotore askoa irakurtzea dateke fraide frantziskotar eta euskarazale biak gogoan edukitzeko modurik hoberena.




Juan Mateo Zabala Zabala 1777ko irailaren 21ean sortu zen, Bizkaiko hiriburuan. Aita bakiotarra zuen eta ama, ordea, Arratia aldeko Areatzakoa. Gurasoen nongotartasuna kontuan harturik etxean euskaraz egin zutelako pisuzko arrazoia bide bada ere, Juan Mateo ez zen euskaraz zalu eta arinki aritzen zirenetakoa, segurik ere frantziskotarren etxean gazte-rik gazte sartu zelako. Horrela aitortu zigun Zabalak berak bere *El verbo vascongado* idazkiaren atarikoan: «Neure ikastaroko urtean erdelemerian igaroneban eta ain aldi luzez euskararik entzun ez nekelako, iñok siñistu daiken baño geyago sortu ta motel-

ezarri zuen arte. Frantziskotarrrek Gipuzkoako hiri horretan zuten etxean mende laurden bat igarota bertan zendu zen Zabala, 1840ko otsailaren 6an.

Ausaz Zarautzen eman zuen denbora huraxe izan zen euskara berreskuratzeko lagunduzion gauza. Iritsi eta bi urteragai izan zen euskaraz misionatzeko, hizkuntza sotilki eta azalean menperatzea baino askozaz gehiago eskatzen zuena. Estreinako euskarazko predikazioa 1817an eman zuen, Eloorrion, eta ordutik, gutxiz gehienetan Manuel Ignazio Aldekoa edo Juan Ignazio Astigarraga fraideki-

Zarautzen zuela ahanzteke, argikiro adierazten digu zein zen Zabalak hobesten zuen euskara eredu. Horren harian zera azpimarratu behar da, Zabalak ez zuela sekularenean Gipuzkoako alderdi bizkaieradunean predikatu.

Duda izpirik gabe, herriz herri eginiko lana ezin balio-tsuagoa gertatu zitzaion Zabalar bere ekoizpen idatzia ontzeko. Bizi zela lan bat ere agertu ez bazuen ere, ondu zituen euskal lanak ugariak izan ziren. Bere lanik gutzizatsuen hil eta zortzi urtera agertu zen, *El verbo regular vascongado del dialecto vascongan*. Liburu



du nintzan». Haatik, Pablo Astarloak ondu lanak limurturik edo, Larramendiren idazkien irakurketak zeharo eragin zion euskara berriz ere freskatzera.

Zabalak burutu zuen ikas bidaziaren zantzurik ez dugu, nahiz eta dauden datuen arabera orduko frantziskotarren probintzian zeuden erdal eremuko komenturen batean ikasi ahal izan zuela pentsa daitekeen, hau da, Urduña, Gasteiz edo Santanderren. Nolanahi ere den, 1804rako Bilbon zegoen jada seglarren filosofia irakasle. Bonapartek xedarritu 1808ko esklaustrazioak Galizia aldera eramán zuen, harik eta Euskal Herrira berriz ere itzuliz Zarauzko komentuan 1815eko urriaren 15ean betiko bizitokia

deekin batera, aintz tokitan ibili zen euskaraz predikari: Abadiño, Amurrio, Arrankudiaga, Arratzu, Arrieta, Arrigorriaga, Bakio, Baranbio, Berganoitia, Berriatua, Berriz, Busturia, Dima, Durango, Ea, Ereño, Errigoiti, Gamio, Gernika, Getxo, Gorozika, Ibarrangelu, Ipazter, Larrauri, Laudio, Laukariz, Leioa, Lumo, Mallabia, Mañaria, Mundaka, Mungia, Munitibar, Muxika, Orozko, Plentzia, Sondika, Urduliz, Zaldibar, Zamudio eta Zeberio. Beraz, Araban eman zituen banakan lekot, Bizkaian egin zituen bere misio gehientsuenak; edozein modutan ere, eman zituen guzti-guztiak behinik behin bizkaieraren eremu herrtsian. Honakoa nahikoa esanguratsua da, bada, eta bizitokia

horren burutze lanean 1803an hasi zen, Astarloa irakurri zuen unetik beretik. Argitalpenaren ardura, berriz, ironikoa agitu arren, Gipuzkoako Diputazioak hartu zuen bere gain, Iztueta- ren eta Iturriagaren oniritziei eskerrak. Liburu zaintsu horretan bizkaieraren aditzaren azalpen zehatza egin zuen Zabalak, zukako nahiz hikako aditz laguntzailea zeharo garranturik emanez. Bibliografiagile eta alegiagile aparta ere izan genuen bilbotarra. @INoticia de las obras bascongadas que han salido a la luz después de las que cuenta el P. Larramendi@- idazki ezagunean Zabalak 52 lanen berri eman zigun, eta apika bere lanik ezagunena diren alegiak Urkixok agertu zituen lehenengoz RIEV-en.



panpilonia zirkus

Pello Argiñaren



Kalamu haziak ez dira transgenikoak. • MIKEL SAIZ

Jamaikako enbaxada

IRUÑEKO ALDE ZAHARRA, XABIER karrika. Txoko batean La Mota kalamu denda. Bitxia, berria, berezia. Barnean Jaione Andonegi biologoa eta mundu oso bat *El cañamo resiste y viste* lelopean (*Eutsi eta jantzi kalamuarekin*).

Kalamua *cannabis sativa* landarea da. Txerriaren kasuan bezalaxe, guzti-guztia aprobetxatzen da. «Zurtoina arropa, sokak, adreiluak, papera eta perfumeak egiteko erabiltzen da; hostoak konposta eta animalien elikagai bihurtzen dira; eta kukulutik, berriz, marihuana sortzen da».

La Mota dendan arropa, oinetakoak, poltsak eta bestelako osagarriak aurki daitezke, ez oso merke, ordea. Jaione Andonegik dioenez, «kalamu garestia da oso, kalitate onekoa delako. Kotoia baino bost aldiz iraunkorragoa da. Gainera, ezaugarri termiko bereziak dauzka: udan ferkoskoa eta neguan beroa da».

Alde batera utzita kalamuaren emaitza industrial, landarearen erabilpen ludikolokantea aztertzeraz jo dugu ondoren. «Nik ezin dut marihuana saldu, hori legez kanpoko da. Haziak saltzeko, berriz, ez dago arazorik. Besteak beste, perfumea, olio, edariak eta muesli egiteko baliatzen dira». Bere esanetan, landatu ondoren soilik garatzen ahal da irribarra, fantasia eta plazerra eragiten duen PHC alkaloidea.

Bestelako haziak ere saltzen dira han. «Efedrak speedaren

antzeko erreakzioa sortzen du. Kava-kavak, berriz, alkohola- ren ondorio berberak eragiten ditu. Arrosa lisergikoak *tripi*-ak bezalakoak dira».

Landaketa behar bezala egiteko zenbait baliabide ere aurki daitezke Xabier kaleko denda. Marihuana argiztatzeko lanpara bereziak, ernaltzeko lur egokia eta liburu eta aldizkari bilduma zabala.

Bi urte eskas daramatza dendak zabalik. Arropa eta osagarriak saltzeko baimena du. Osagarriak, bistan denez, oso bereziak dira. Horrek erakartzen du erosle gehien. «Poliki baina aurrera doa negozioa. Bezero gehienak gazteak dira, eta etxean landaketa egiteko informazio eta baliabideen eske datoz. Hala ere, despistaturen bat erretzeko marihuana erostera etortzen da oraindik». Biologoaren ustez, drogari norberak hartu behar dio neurria, «bakoitzaren egoera pertsonalak, nortasunak eta osasunak orekaturik egon behar dute drogak hartzeko. Gozatzeko eta haien menpe ez egoteko, ongi ezagutu behar dira substantziak».

Dena den, debekua informazioaren oztipo nagusia da. Belgikan, Holandan eta Suitzan bezalaxe, La Mota dendako jabeak droga bigunak gurean laster legezkatuko direla uste du, besteak beste, marihuana, landareen artean erregea. Erre eta kea. Reggaea entzuteko aproposa.

Ziria

• Motxorrosolo •

Arront klasiko

AURKI JASOKO DUGU ARTXIBO OROREN ZOKO-MOKOAK ARAKATzen dituenaren azken predikua. Orri honetan bidaide izan zuenaren gisan, hautsik harrotu gabe doa. Inoiz egindakoa goستن arrabiatuko dira, gurean berantiarak gara oso esker ona erakusten. *Hirutasan Santua* osatzen zuen honek prest dauka agurra.

Txaro Zubieta

GURE TXOKOA DANTZA TALDEKO KIDEA



«Lana egin beharko da gazteak Kauteretan parte hartzeko»

soslaia

Txaro Zubieta beratarrak 29 urte ditu. Gure Txokoa dantza taldeko kidea da ttikitandik, eta arduradunetako bat da gaur egun. Haurra zela atera zen lehenbizikoz Kauteretan, mende hasieratik Beran ospatu izan zen besta berreskuratu zenean.

Dantza taldeak makina bat ekitaldi antolatzen du urtean, eta aurten Kauterena ez antolatzea erabaki dute, joan den urtekoa egin aitzinetik jakinarazita eta aurtengo antolakuntzan lagunduta. Gazteen artean besta honekiko interesik zergatik ez dagoen ez daki Txarok.

«Harrituta nago ni, ez dakit jendeari lotsa ematen dion edo zer gertatzen den, kantatu behar delako ote den... Beharbada, serioegia delako izanen da, edo formalegia, ez dakit»

Zaharrak berri Lesakako zakozarretan

LESAKAKO ZAKOZARREN BESTAK ere badu arazorik. Ez da kontu berria, hala ere. Urtero jendeak lehenagotik izena eman ez, eta egun berean pilotalekura biltzen ziren zakozarren jantziak prestazera. Denentzako belar eta zako nahikorik ez zen izaten, ordea, eta horrek arazo ugari sortzen zuen. Aurten, konponbide gisa, lehenagotik izena eman behar izatea derrigorrezkotzat paratu du Arrano Elkar-teak, bestaren antolatzaileak. Gainera, norberak prestatu beharko ditu zakoa eta gainerako osagaiak bestan atera ahal izateko. Baina ez da hori arazo bakarra. Azkeneko urteotan jende anitz ateratzen da igande arratsean, parte hartzera zein ikuskizunaz gozatzera. Horrek masifikazioa eta konpartsa bera kontrolatzeko zailtasunak ekarri ditu, batik bat besta motagatik. 50en bat lagun atera ziren joan den urtean, eta zenbaitzuek 30era jaitea nahi dute. Beti gertatuko zen hori, baina ikusle moduan ere jende gehiago dagoenez, arazoa bikoiztu egiten da. Nork eskatuko, ordea, zintzo portatzea inauteri arratsean, eta zeini eta protagonistei.

da handia, baina taldean motibazioz ez dagoenean zaila da lan egitea. Joan den urtean argitu genuen aurten ez genuela guk antolatuko, eta Kultur Batzordean jendeak ulertu zuen. Jende gaztea ez dago motibatua, eta gure dantza taldeko jendea gaztea da.

■ Besta Batzordeak antolatuko du, inongo taldek ez baitu arduratu antolatzeke.

Batzuetan erraza izaten da kritikatzeko, eta ea zergatik ez dugun segitzen galdetzea. Baina interesa duen jendeak antolatu behar du. Erraza da bertzei eskatzea eta norberak ardurarik ez hartzea.

■ Zer galduko litzateke Kauterak egiten ez balira?

Pena emanen lidake niri, hainbertze urteren ondotik berriz ere ez egitea. Hala ere, ez dut uste kontua mantentzea mantentzeagatik denik. Ez dut momentu honetan aurrerapen handirik ikusten. Akaso hiru edo lau urtez utzi beharko da egin gabe, eta agian belaunaldi berri batek gustura antolatuko du hemendik urte batzuetara. Nork daki.

—> Jon Abril

Orain dela 20 urte baino gehiago berreskuratu zuen Gure Txokoa dantza taldeak Kauteren besta Beran. Hasierako arrakastaren ondotik, behealdia etorri zen, eta egun ez du aparteko interesik beratarren artean.

JOAN DEN URTEKOAREN ONDOTIK iragarri zuten Gure Txokoako kideek aurten ez zutela antolatuko Kauteren besta. Udaleko Besta Batzordeak hartu du bere gain.

■ Hainbertze urteren ondotik, zergatik ez du arrakasta lortu Kauteren bestak Beran?

Harrituta nago ni, ez dakit jendeari lotsa ematen dion edo zer gertatzen den, kantatu behar delako ote den... Baina ez dakit horregatik ere izanen den, Olentzeroan-eta kantatu behar izaten da, eta jende anitz ateratzen da. Beharbada serioegia edo formalegia delako, ez dakit.

■ Besta Batzordean egoera aztertu da, eta jendeak par-

te hartzea bultzatu beharko dela aipatu zen. Hurrengo urteetan zerbait lortuko dela uste duzu?

Ezkorra naiz ni horretan. Egia da zerbait lortzekotan jendea motibatu beharko litzatekeela, kanpaina handi samar bat egin, jende gaztea animatu. Lan handia egin beharko litzateke, eta emaitza zein izanen den jakin gabe.

■ Gure Txokoa Elkar-teak Olentzeroa, Diostesalbea, inude eta artzainen konpartsa eta bertze antolatzen dituzte. Horietan gazte anitz ateratzen da. Parte-hartze krisia dagoenik ezin erran, beraz, ezta?

Ez, parte-hartze krisirik ez dago. Olentzeroan-eta inoiz baino jende gehiago dabil azkeneko urteetan, eta inauterietako astelehenean, eta inude eta artzainen ere jende anitzek parte hartzen du. Argi dago ez dela parte-hartze krisia, bertzela horietan ere nabaritu litzateke.

■ Gainerakoak antolatzen segituko du Gure Txokoak, baina Kauteren ardura ez du bere gain hartuko. Interesik ez dago dantza taldean besta hau antolatzeko?

Interesa baino gehiago, motibazioa da falta dena. Bi edo hiru pertsonak hartu izan dugu egun hori antolatzeko ardura. Lana ez



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Independentzia

Egunero ordu batetik aurrera froga bat egiten du mahai ondoan dudan irratiari. Piztu, diala mugitu eta irrati publikora heltzean badakit Del Burgoren ahotsa entzuten dudala. Froga egindakoan, ez pentsa solasaldia adituko dudarik. Baina, aizue, frogan egin ondoren lasaia gozatu dut lanean, foru lurraldeko komunikabide publikoak aniztasuna kontuan hartzen duela baieztatzen baitut.

Herenegun, ordea, huts egin nuen. Izan ere, ahots hori ez zen UPNko diputatuarena, gure lehendakari txit argiarena baizik. Corellako Administrazioak erdi lurperaturik zuen euskara erabat lurperatzeko asmatu duten dekretuaz ari zen. Zilegi iruditzen zaio dekretuaren aurkako errekurtsioa aurkeztu izana (eskerrik asko, jauna), baina legezkoa delakoan dago. Zergatik? Nafarroako Kontseiluak oniritzia eman ziolako. Arrazoi sakona, dudarik gabe.

Torero-laguntzaileak maisuari egin beharreko lana bezalakoak da *kazetari-zerbitzari* batzuenak. Badakizue, zezena toki egokian utzi maisuak bere lana egin dezan. Baina batzuek maisu-ikasketak eginak izanagatik, ez dira inoiz maisuak izanen. Adibidez, gure lehendakari txit argia.

Sakona, dudarik gabe, Sanzen arrazoia. Nafarroako Kontseiluak oniritzia eman dio proiektuari. Eta nork jarri ditu kontseiluko kideak? Non egiten dute lan? Nondik datoz? Gobernuak berak izendaturiko legelariak, bertako goi-funtzionarioak batzuk, gai al dira Gobernuari kontra egiteko? Eta funtzionario ez direnek nor dute bezero hoberenakoa? Gobernua, agian?

Ustezko nafarzale hauek ez dute erremediorik, baina hain harropuzturik ikustea ikaragarria da. Nafarroako erakundearen defendatzaileak omen dira, baina sortu aurretik hiltzen dituzte, menpekoak jartzeak erakundearen sinesgarritasuna euskara Administrazioan bezala uzten duelako lurperaturik. Azken hilabeteotan sorturiko bi erakundeetan (Kontseilua eta Arartekoa) horrela jokatu dute. Eta orain Corellakoak haren menpekoek eginiko txostenean oinarritu nahi du astakeriaren defentsa. Barregarria bezain nazkagarria.

gure aukerak

MUSIKA

- **Zangoza:** Mikel Urdangarin Karmene n 20:30ean.
- **Iruñea:** Soblind taldeak Cotton Club tabernan 23:00etan.
- **Gares:** Sociedad Alkoholika eta Jousilouli taldeen kontzertua bihar, Gares aretoan, 23:00etan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikirik antolatu zinemaldiaren baitan, gaur, Amerikako historia X filma eta Hauspo soinua film laburra pantailaratuko dituzte, 20:00etan, Golem Baiona zinematokietan.

BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Bihar, Korrika Kulturaren baitan, Bertso Bakoia izeneko bertso saioa eginen dute Arrosadia auzoan zehar, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** *Nolako euskara erabili Iruñerrian* izenburupean Iñaki Caminok, Kike Diez de Ultzurrunek, Kiko Urmenetak eta Miguel Angel Asianekin mahai ingurua asteartean, 20:00etan, Iruñezar euskaltegian.
- **Iruñea:** Diario de Navarra: estabilidad ideológica izenburuko hitzaldia emanen du gaur Victor Moreno idazleak Nabarria kultur zentroan, 19:30ean.
- **Mutiloagoiti:** Asteazkenean, Xabier Deán margolaria kultur etxean dagoen Lurra kromatika bere erakusketaren inguruan solastatuko da 20:00etan, kultur etxean bertan.

IKASTAROAK

- **Mutiloagoiti:** Arangurengo Udalak antzerki ikastaroa antolatu du 16 urtetik goitikoendako. Lau urtetik hamabira bitartekoenda-

ko ere prestatu du ikastaroa. Eta marraztea edo margotzea gustuko dutenekin lantegia sortu nahi du. Hiruretan, izena emateko epea hilaren 20an akituko da.

- **Iruñea:** Gazteriaren Etxeko ikastaroetan izena emateko epea zabalik da martxoaren 3a arte. Aretoko dantzak, flamenkoa, masajea, yoga, aerobic, lore idorrak, margoketa eta astrologia.

LEHIAKETAK

- **Elizondo:** Aurtengo Baztandarraren Biltzarra iragartzeko kar-

tel lehiaketa abian da. Kartelean honako testu honek agertu beharko du: Baztandarraren Biltzarra 01. Elizondon, uztailaren 22an. Eskuarak batzen gaitu. Kartelaren neurria 50x70 zentimetrokoa izanen da gehien jota. Offset sistemak onartzen dituen teknika eta kolore guztiak erabil daitezke. Irabazleak 50.000 pezeta esku-ratuko ditu (2.000 libera). Lanak martxoaren 3a baino lehen entregatu behar dira honako helbide honetan: Baztandarraren Biltzarra Elkartea, 22 PK, 31700 Elizondo.

ERAKUSKETAK

- **Barañain:** Alaitz ikastetxean inauteriei buruzko erakusketak 23a arte, astelehenean ostiralerara, goizeko 09:00etatik 21:00etara.
- **Atarrabia:** Cesar Guerraren Cuba 1994 erakusketak dago kultur etxean, hilaren 23 arte, astelehenean ostiralerara, 17:00etatik 21:00etara.
- **Barañain:** Argazki lehiaketak lan hautatuak paratu dituzte kultur etxean, hilaren 23a arte, Astelehenean ostiralerara, 18:30etik 20:30era.

EGUNKARIA

*itz d uaccij comes nec liceat ei dayer ut
pcedentiū 7 succedentiū gnationū suarū
iz faciet ut ling^a nauarroy dicat una
7n lehoarritz. Similit^r açeari umea ei
iccarū filios suos in gnationes gnationi*

Nafarren hizkuntza

Euskara eraso administratiboa jasaten ari den garai honetan, hobe da aldeko argudioak behar bezala erabiltzea. Lingua navarrorum esamoldea ez zuten erromatarrek asmatu, geroago sortuko zen. Hona hemen 1167ko hitzarmen bat Artaxonako Pedro apezpikuaren eta Bela kondearen artekoa: «Orti Lehoarritz faciet ut lingua navarrorum dicatur 'unamiaçter' Açeari Umea faciet 'buruçagui'». Hau da: «Orti Lehoarritz jarriko du, nafarren hizkuntzan erraten den gisara, maizter bat, eta Aznar Umeak, buruzagibab». Erdi Aroan nafar eta euskaldun hitz sinonimoak ziren. Agiri horrek frogatzen duen moduan, euskara eta lingua navarrorum (nafarren hizkuntza) kontzeptuak ere sinonimoak ziren. Erdi Aroan nafarren hizkuntza euskara zen, baina euskara ez zen Nafarroako hizkuntza, agintariak latina eta erromantzea nahiago baitzuten. Tamalez, agintarien jarrera ez da batere aldatu.